

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Amurrioko Emakumeen Memoria Historikoa berreskuratzeko ikerketa bekaren 2019ko deialdia onartu zuen 2019ko apirilaren 4ko tokiko gobernu batzarraren erabakiaren laburpena**

BDNS (identifikatzailea): 450419

Onuradunak: Ondorengo tituluetakoko bat duten pertsona fisikoak: lizentzia, diploma edo erdi-mailako LHko ikasketak.

Betekizunak eta horiek aurkezteko moduak: Beka sei hilabeterako izango da gehienez, horren esleipena argitaratu ondorengo egunetik aurrera, baina luzapen bat egon daiteke, epaimahaiak hala xedatzen badu.

Xedea: Deialdi honen helburua da laguntza ekonomikoak arautzea Amurrioko Emakumeen Memoria Historikoa berreskuratzeko ikerketarako 2019ko laguntza ekonomikoak.

Oinarri arautzaileak: Amurrioko Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak 2019ko urtarrilaren 17an onetsi zituen, eta ondoren haien testu osoa urte bereko otsailaren 20ko ALHAOn, 20. zenbakian, argitaratu zen.

Zenbatekoa: deialdi honetako bekaren zuzkidura 3.000,00 euro da. Gastua 23002.480 partidatik egingo da.

Zenbateko horretan egoki diren atxikpenak egingo dira, PFEZren araudian ezarritakoari jarraituz. XX. I. partidaren kontura ordainduko da. Izaera Orokorreko Zerbitzuetako langile gastua 321,84 euro da.

Oinarriak aztertu eta informazioa dokumentazioa eskuratzeko: Amurrioko Udaleko Berdintasunaren Arloa (Juan Urrutia plaza, zk.g., 01470 posta kodea, 945891161 telefonoa), eta Amurrioko Udalaren webgunea, deialdia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita eta eskaerak aurkezteko epea amaitzen den arte, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Eskaerak aurkezteko tokia: Amurrioko udaletxea (Juan Urrutia plaza, zk.g., 01470 posta kodea). Halaber, posta ziurtatu bidez edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan xedatutako bideetatik edozein erabilita aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Eskaerak aurkezteko epea: 15 egun baliiodun, deialdia ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Garaiz eta behar bezala aurkezten diren eskaerak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

Amurrio, 2019ko apirilaren 12a

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**